

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1998ko urriak 29 • 154. zka.



Bildumak egiteko afizioa

Hontzak, pipak, txiskeroak, txanponak, ...

Bolsa Garantizado VII (F.I.M.) Fondoa

Inberti ezazu segurtasun osoz

[Gustura geratzen ez bazara, dirua itzuliko dizugu]



Caja Laboral Bolsa Garantizado VII, Caja Laboral Gestion SA SGIICK gestionatzen duen Inbertsio Fondoa da. Entitate gordailuzaina eta bermatzailea, berriz, Euskadiko Kutxa da. Informazio-liburuskak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalean dago erregistratuta eta pertsona interesatuaren eskueran.

Bolsa Garantizado Fondo berria


Euskadiko Kutxaren Bolsa Garantizado VII Fondo berriak burtsaren merkatuan lasai sartzeko behar diren baldintza guztiak betetzen ditu. Izan ere, nazioarteko burtsa handietan inbertitzen duzu, baina pezetarik arriskatu gabe. Burtsak igo egiten badu, New York, Paris, Londres eta Tokioko Burtsen indizeen batez besteko balioaren % 45eraino emango dizu. Eta jaitsi egiten bada ere gustura geratuko zara, mugaeguneratzerakoan zure kapitalaren % 100 jasoko baituzu.

Inberti ezazu Bolsa Garantizado VII Fondoan eta egizu lo lasai.

Informazio gehiago jaso nahi baduzu,

jo ezazu zerbitzu honetara:

- Euskadiko Kutxaren sukurtsalak
- 901-333-444 telefonoa
- <http://www.cajalaboral.es>


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zure konfindatzari
erantzun zuzena



Bildumarik egiten duzu?

Eba Agirre
(Langilea)

Momentu honetan ez dut egiten baina umeekin egin izan ditut animalien bildumak. Eurak futboleko kromoena egiten dute.


Neuk egitekotan landare edo sendabelarrei buruzkoa egingo nuke.



Gorka Martinez
(Ikaslea)


Ez, ez dut egiten. Txikitan errealeko futbolarien kromoena egiten nuen.

Mentxeroena egiten duten lagunak baditut baina niri bildumak ez zaizkit gustatzen, beraz, momentu honetan ez nuke egingo.



Juan Ape
(Jubilatua)

Orain ez, lehen bai. Sigi-luena, anaiak ameriketatik bidalitako kartei kenduta. Gaztetan gustora egiten nuen baina orain orduko bilduma non daukadan ere ez dakit.



Elisabeth Blanco
(Ikaslea)

Ez, ez dut egiten, txikitan kromoena egiten nuen. Orain egitekotan animalien argazkiei buruzkoa egingo nuke, zaldiena batez ere, animalia hauek gustatzen zaizkit eta.



eskutitza



Egiten ari gara

Uztaila erdian polizi andana batek egin eta egin irratia itxi zituztenean, orduan egin-eko erredaktore buruetako bat zen Martin Gari-tanok hau esan zuen: egin, egingo dugu.

Orditik, gaurko egunera gauza asko gertatu dira. Hasierako harridura eta gaitzezpenak adierazpen askatasunarekiko elkartasun erraldoia bihurtu ziren. Elkartasun hauek mota guztietako egin-zaleetatik (langile, baserritar, etxekoandre, ikasle, ...) etortzeaz aparte, Euskal Herriko sektore sozial, politiko zein kultural zabal batek eskaini zuen.

Orain, itxieraren aurrean gure elkartasuna adierazi genuenok, hitzetatik ekintzetara pasatzeko aukera dugu. Horretarako egunkari berria aterako duen komunikabideen proiektu enpresarialean laguntzea da daukagun aukera. Seguruenik gehienok honezgero ezagutzen duzuen arren, hauxe da proiektua: Euskal

Komunikabideen Hedapenerako Elkartek (EKHE S.A.) EGUNKARI BERRIA EGINGO DUEN enpresa aterako du, enpresa hau finantzatzeko Baietz fundazioa erabiliz.

Baietz fundazioak 1.000 milioi behar ditu egunkariarentzat. Diru hau lortzeko 100 mila pezetako akzioak jarri dira salgai. Akzioak hartzeko guregana etorri besterik ez duzue. Beraz akzioak edo azalpenen bat nahi izanez gero astearte eta ostegunero Urbaltz elkar-tean gaituzue arratsaldeko 7etatik 8,30etara bitartean. Beldurrik gabe etorri eta guri laguntzeko edo akzioak saltzeko ideiak badi-tuzue gustora hartuko zaituztegu.

Bukatzeko, akzioak erostera animatuz gain, egin-ekin 21 urtetan mantendu duzuen ilusio berberaz segi eta datorren egunkari-az harro egongo zaretelakoan agur t' erdi.

Atxabaltako Egingo dugu komitea



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Kultur etxea, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 01 05. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Iratxe Bengoa eta Mirari Altube **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berebizar, Aitor Antxia, Inaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzaila:** Janete Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Ordenantza fiskalei buruzko osoko bilkura

IPC aren azpitik dauden igoerak izan ziren gehienak



Azkenengo osoko bilkura

Urriaren 22an ospatutako udal plenoan, ordenantza fiskalak izan ziren aztergai. Zinegotzi bakoitzak aurretik datuak aztertuta zituenenez eta denak ados agertzean, onartutzat eman ziren inolako eztabaidarik gabe. Alkatearen esanetan, orokorrean IPC-aren azpitik dauden igoerak proposatu

dira eta beti ere alboko herrietako datuekin konparaketak eginez. Horrela bada, urari IPCa aplikatu zaio eta %2,1a igoko da, zaborra berriz %1a igoaz, IPCaren azpitik geratu da.

Kiroltxeko tasak ere igo egin dira baina inguruko herriekin konparatuz %20-25 bajuagoak direla ikus daiteke.

Alkatearen esanetan "igoera murrizta egitea erabaki da kirola potentziatzeko, beti jende gaztea kontutan izanik". Horrela, %2tik gora igoko da gimnasioa, aerobic-a eta instalazioen erreserba egitea. Abonuei dagokienez, berriz, 14-20 urte bitarteko atxabaltarrentzat 4.300 pzta.tik 4.500era igo da eta kanpotarrentzat 5.300etik 5.500era. 20-65 urte bitarteko atxabaltarrentzat 10.600etik 10.800 pzta.ra igo da eta kanpotarrentzat 11.600etik 11.800era. Langabetu, ikasle eta ezinduentzat 3.800etik 3.900era pasa da. Abonu familiarrak ere igo egin dira, 20 urte arteko seme alabak dituzten famili atxabaltarrentzat 14.300etik 14.800era pasa da eta famili kanpotarrentzat 15.300etik 15.800era.

Ordenantza hauek onartu ostean udalak, Bedarreta kaleko garaje bat enkantera atera zuen 1.500.000 pezetatan jarriaz.

Durana kalean berriz seinaleak

Andramaixetan apurtu eta bota zituzten trafiko seinaleak berriz bere lekuan jartzen ibili ziren pasa den astean. Orain arte seinaleak falta zirelako kotxeak aparkatuta egon badira ere Durana kalean, berez kale honetan aparkatzea debekatua dagoenez, udaltzainek lehen bezala izunak jartzen hasiko direla gogorarazi nahi dute. Izun guztiak trafiko sailera pasako dituztela ere adierazi dute eta han, izunik txikiena 5.000 pezetakoa dela kontutan izan dezala jendeak.



IRIARTE

Umeen
denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 10 96



**FELIX
PAGALDAY**

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
**Lyonel
Arquero**

Dekorazioa:
**Soraya
Arquero**

Ortzadar taldea kurtso berriko ekintzekin hasia da

Adin bereko jendea ezagutu, euskaraz bizi eta dibertitzea dira beraien helburuak

Orain arte Ortzadarrek antolatutako ekintzetan parte hartu eta jolasean ibili diren haurrak nagusitu eta orain begirale gisa hasi dira lanean. 25 gazte dira gutxi gora behera uztailean udaleku irekietan hasi eta jarraitu nahi dutenak, zuzendaria, berriz, Kepa Errasti da.

Zapatuz zapatu

Urriaren 17an eman zioten hasiera kurtsoari "zapatuz zapatu"rekin. Bertara 6tik 14 urte bitarteko 30 bat ume apuntatu dira, gehienak 11 urte ingurukoak eta "beste guztiak ere animatu nahi genituzke, oso ondo pasatzen baitugu elkarrekin ume eta begiraleok" dio Kepak. "Gure helburuak adin bereko jendea ezagutzea, eskolatik kanpo euskaraz hitzegin eta bizitzea eta izugarri dibertitzea dira. Gu, berriz, ilusio haundiz hasi gara eta ziur gaude ondo pasatuko dugula".



Maskarak eta kandelak egin zituzten zapatu arratsaldean

Proiektuak

Beraien proiektuak zapatuetakoa ekintzetaz gain, Gabonetan kiroltxean, umeendako jolasteko parke bat antolatzea da, tailerrak, piszi-nako jolasak, ipuin kontalariak,

gaztelu puzgarriak,... izango direlarik bertan. Kurtso amaiera aldera, berriz, aste bukaerako irteera bat egitea ere nahiko lukete.

Azaroaren 1ean Domu Santu eguna

Urtero bezala azaroaren 1ean Domu Santu eguna ospatuko da. Lora dendetan jadanik ikus daitezke Domu Santu egunerako enkarguak hartzen direla esanaz kartelak eta jende ugari hurbilduko da egunotan, nahiz eta loreen prezioak izugarri garestituak egon. Ohiturari jarraituz, kanposantutik bueltatxo bat emango du jendeak, hildakoetaz gogoratu eta haien alde otoitz egiteko. Txukun eta polita aurkituko dugu egun honetan, lora ugari egongo baita bertan.



Datorren domekan ospatuko da Domu Santu eguna



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Hauteskunde ostean emaitzak aztergai

Euskal Herritarrok nagusi, EAJ eta EA atzean dituela

Eusko Legebiltzarrerako urriaren 25eko hauteskundeak normaltasun osoz eta parte hartze handiaz burutu ziren Aretxabaletan. Botua emateko deialdia 5.086 biztanleri luzatua bazegoen ere, 1.157 lagunek ez parte hartzea erabaki zuten, beraz, abstentzioa %23koa izan zen.

Lortutako emaitzen aurrean eta 1994ko Euskal Legebiltzarrerako hauteskundeak kontutan izanik, daturik aipagarrienak Euskal Herritarrok taldearen goraka nabarmena, 360 botu gehiago, eta Partidu Popularraren igoera izan dira. Behera egin duenik ere izan da Ezker Batua hain zuzen, 8 botu galduaz.

Euskal Autonomi Elkarte

Euskal Autonomi Elkarteari dagokionez ere parte hartzea orain










Botuen kontaketa egiten

lau urte baino askoz haundiagoa izan da %70,6ra helduaz. Gora-kadarik nabarmenena EH eta PPK izan dute, 1994an baino 3 eta 5 eserleku gehiago lortuaz. Hala eta guztiz EAJ atera da nagusi 21 eserlekurekin, ondoren PP 16rekin,

EH 14rekin, PSE-EE beste 14rekin, EA 6rekin, IU-EB 2rekin geratu da eta UA beste 2rekin.

Orain itunei buruz hitzegiten hasteko ordua izango da, Euskal Gobernu berria lehenbailehen osatu eta lanean hasteko.

ARETXABALETAKO DATUAK	 EH Euskal Herritarrok	 EAJ PNV	 EA	 PSE EUSKAL ENDEGA	 ia ezker batua	 Partido Popular	 Unidad Alavesa
Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 94	984	842	554	505	162	171	9
Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 98	1344	908	574	510	154	348	9
UDAL HAUTESKUNDEAK balira, lortutako zinegotziak	5	3	2	2	0	1	0

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

Iber

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2
Tfnoa: 943 79 79 24


Esko Sport

**Kirola eta Sport
moda Leintz
Bailaran**

Intxaurtxueta, 5
☎ 943 71 52 96 ESKORIATZA Larunbat arratsaldetan
zabalik



Omenaldi beroa jaso zuen Axuk

Azuzena etxean

Zapatuan Axuren ongi-etorria ospatzeko afaria egingo da Taberna-Berrin

Joan den eguakotxean aske utzi zuten Azuzena Cardenalek ongi-etorri beroa jaso zuen herritarren eskutik Mitarte plazan egin zitzaion harreran. Axu 8,30ak inguruan iritsi zen Aretxabaletara, aurretik Leintz-Gatzagan ongi-etorria jaso ondoren. Mitarte plaza lagunez eta senitartekoez bete zen eta benetan ekitaldi hunkigarria izan zen, bai Axurentzat eta baita bertan batutako guztientzat ere. Xabier Zubizarretak eman zion hasiera ekitaldiari. Ondoren agurra dantzatu zioten Iratzeder Iturri eta Ekaitz Filarmendik eta bukatu aurretik Kepa Errastik bertso batzuk bota zizkion. Tartean opari pila bat ere jaso zituen.

Zazpi hilabete atxilotuta

Martxoaren 21ean atxilotu zuten Axu Cardenal eta zazpi hilabete atxilotuta eman ditu Madrilen. Kolaboratzaile izatea leporatzen diote, baina bere aurkako probarik ez dagoenez, bi milioiko fidantzapean aske utzi dute. Hori dela eta, astero-astero Bergarako auzitegitik pasa beharko du Axuk. Bere adierazpenetan oraindik ez daki epaiketa noiz egingo dioten, "datorren urtean izan daiteke edo hemendik hiru urtera agian".

Ongi-etorria ospatzeko datorren zapatuako afaria antolatuta dago Taberna Berrin. Joan nahi izanez gero, izena Urbaltz tabernan eman behar da.

Abesbatza gabonetarako gertatzen

Uda ostetik herriko abesbatzak oihartzun haundirik atera ez badu ere, ixilean ari da bere lana betetzen. Gabonak bitartean bi kontzertu eskainiko dituzte: lehena Azpeitian azaroaren 14an eta bigarrena Amorebietan abenduaren 12an. Horretaz gain gabonetarako ere izango dute sorpresarik. Angel Barandiaranek aurreratu bezalaxe "aurten ez da azken bi urtetan moduan zarzuelarik egongo, baina ekitalditxo bat gertatuko dugu". Dagoeneko solistekin lanean hasita daude gabonetako kontzertu bat eskaintzeko.

Kolektore lanak Bizkaia kalean jarraitu

Nafarroa kalean kolektorea sartzeko obrak burutu ondoren, aste honetan Bizkaia kalean hasi dira. Obrak direla eta oraindik Belorrieta eta Loramendi arteko tartean ezin da aparkatu, eta honek aparkaleku arazo batzuk sortu ditu auzokideen artean. Hori dela eta, inguruan bizi direnenei pazientzia eskatzen zaie. Dena dela, Bizkaia kale osoa itxi aurretik Nafarroa kalea zabaltzeko asmoa dago, beraz, azken hau laster irekiko da.

Martín
RELOJERÍA - BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 943 79 01 72

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK

RKU

Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

**ARBULO
HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Bukatu dira odol emateak

Urriaren 19an, astelehena bukatu ziren Aretxabaletan odol emateak. Urriko lehenengo hiru astelehenetan Arabako odol bankuko unitate mugikorrekoak Osasun Zentruan izan ondoren, bertako emaitzak ondorengoak izan ziren. Urriaren 5ean, 47 lagunek eman zuen odola horietatik 2 inoiz eman gabeak ziren eta 5ek berriz ez zuten ematerik izan arrazoi ezberdinegatik. Urriaren 13an, 29 pertsona hurbildu eta denek eman zuten

eta urriaren 19an, berriz, 30 lagunek, horietatik 2 berriak izan ziren eta 4k ez zuten ematerik izan.

Iazko datuekin konparatuz gero antzerakoak izan direla esan daiteke, 110 emale izan ziren horietatik 7 berriak eta aurten, berriz, 106 emale 4 berriekin.

Odol bankuko langileek jende gehiago animatu nahi lukete odola ematera, inoiz ez baita nahikoa izaten. Horretarako 18 urtetik 65era bitartean eduki behar da, 50 kilotik gora pisatu, osasun ona izan eta hiesa edo hepatitis a kutsatzea errazten duen iharduerarik ez burutzea.



106 odol emale izan dira urrian herrian

Consum berria zabalik



Eroskiko langile ohiek moztu zuten zinta

Urriaren 19an arratsaldeko 7etan inauguratu zen Aretxabaletako Consum Eroski berria. Bertara gonbidatutakoak, garai batean Andra Mari kooperatiba, gero beste bederatzikin batera Eroski bihurtuko zena, sortutakoak eta Aretxabaletako Eroski dendetako langile ohiek izan ziren.

Consum supermerkatuen buruaren sarrera txiki baten ostean, Bitoriano Aranburuk denda berria bedeinkatu zuen. Loramendi dantza taldeko bi dantzarik aurrekua atera eta Duni Zuazabeitia, Poloni Garcia-Etxabe eta Pilar Gabilondok, urte askoan langile izandakoak, dendari hasiera emateko zinta moztu zuten. Kontxi Oiangurenekin batera denda burua den, Jesus Mari Maiztegi legazpiarrak, dendaren aurkezpena egin zuen supermerkatu guztia erakutsiz eta bukatzeko luntxa izan zen.

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 943 79 39 20
ARETXABALETA

Jauregi
Okindegia

Otalaria, 10
Aretxabaleta

OSKAR
GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABALETA

Izozkitekigozotegia

IZOZKITEGI


Otalaria, 11
Tfnoa: 943 79 93 58
ARETXABALETA

Mikel Uribetxebarria

Aretxabaletako komunikabideak Loramendiko lehendakaria

Aretxabaletako komunikabide guztiak bateratzen dituen elkarteko lehendakaria da. Gaur egun telebista eta Aretxagazeta daude bertan baina sortu daitekeen beste edozeini zabalik dago elkar-tea.

Momentu honetan, Mikel eta batzorde osoa, telebistako proiektuan buru belarri sarturik daude, Gabon ingururako martxan jarri nahi baita.



“Lehenengo frogekin gabonetan hasi nahi dugu”

- Aretxabaleta bezalako herri txiki batentzat ez al da proiektu anbizioa?

- Nik uste ezetz, guk planteatu bezala ez behintzat. Oso oinarritzko planteamendua egin dugu, aurrekontua ikusi besterik ez dago. Ekipamendu mailan oso diru gutxi gastatu da eta pertsona batekin bakarrik eraman nahi da. Oso garrantzitsua izango da jendeak parte hartzea eta borondatezko lana bultzatu nahi genuke.

- Nolako kamarak erosi dituzue?

- Sistema dijitala erabiliko da. Ekipamendu guztiz profesionala izan gabe, domestiko deritzaiona da baina

maila altukoa. Sistema honen ezaugarria, inbertsio txikia eginez kalitate nahiko ona lortzea da. Errez erabil daiteken ekipamendua da eta gainera gero ordenagailuz lan egiteko aukera ematen du.

Bi kamarekin hasiko gara lanean, bere tripode, bateria eta fokuekin. Horrez gain magnetoskopioa, nahasketa mahaia, tituladorea eta emisorako sistema daude. Hartu den langilea teknikoa da, beraz kamara aurrean jarriko den jendea borondatezkoa izan beharko da.

- Zein izango da hasierako programazioa?

- Hasieran, astean hirubat egunetan ematea da asmoa. Berririk eta kirolak emango dira, astebukaerako agenda, mahai inguru edo elkarrizketak ere bai eta Aretxabaletako gauzak ere erakutsi nahi dira.

Edozein herritar eta elkartek erabili dezan nahi dugu, Udaletxeak, elizak, ... oharrak bidaltzeko edo berririk emateko, etxe guztietara helduko den zerbait baita.

- Finantziaketa nola egin da?

- Loramendik eta udaletxeak emandako laguntzak izan dira garrantzitsuenak. Orain enpresa pribatuen laguntzak lortu nahian gabilta eta ondoren publizitatetik ere ateratzea espero dugu. Europara begira ere ibili gara eta orainForu Aldundiak diru partida batzuk aterako ote dituen zain gaude.

- Zein da telebistaren helburua, ATB izatera heltzea?

- Ez horixe. Bi helburu ditugu, bata euskararen aldetik eta bestea komunikabide aldetik. Euskararen aldetik, ahalik eta esparru handienera zabaltzea eta bertako euskarari garrantzia ematea da. Komunikazio mailan, berriz, tresna efikaza bilakatzea izango litzateke.

- Zergatik Aretxabaletako telebista?

- Ideia Loramendik antolatutako mintegi batzutan sortu zen. Herri komunikabide mailan Aretxagazetaren esperientziak oso ondo funtzionatu duela argi dago, baina euskara bultzatzeko beste instrumenturik erabil zitekeen aztertzen hasi ginen. Horrela, telebista izan daitekeela momentu honetan indar handia duena ikusi eta bertara jo dugu.

- Zeintzuk zaudete proiektu honen atzean?

- Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi izeneko talde berria sortu zen orain urte eta erdi, Aretxagazeta eta telebista koordinatuko dituen zuzendaritza batzordea hain zuzen. Hemen, Loramendiko 2 pertsona, Aretxagazetako 3 eta beste 3 herritar daude. Telebistako taldean oraindik ez dago inor eta gure lana momentu honetan, proiektu hau bultzatzea da.

- Nola doa proiektua?

- Nahi baino polikiago. Bertan lan egingo duen pertsona bat aukeratu dugu eta ekipamendua ere ekarteko gertu dago. Orain lokala egokitu nahian gabilta baina hasieran probisional geratuko da. Lehenengo frogekin gabonetan hasi nahi dugu.



Arrazakeria, xenofobia eta Kosovo

“Kosovon hildako, zahar, haur, emakume nahiz gizonen prezio altua ordaindu dute beste nazioarteko gizakion begirada galduen aurrean”

Eguneroko monotonian, bizitzako beste zenbait arlotan bezala inprobizazioak harritu egiten gaitu, baina aurtengo udazken honetan nire pentsamendu inprobisatuek Kosovora ihes egiten dute. Kurioso da zein urruti sentitzen den zoritxarra guri zuzenean ez dagokigunean!

Hemendik urruti sentitzen dugu Kosovo; urruti negua, urruti hotza, urruti gosea, urruti genozidioa, urruti samina, urruti arrazakeria, urruti garbiketa etnikoa, urruti Kosovo, urruti gizakia, askatasuna eta bakearekiko mehatxupearan soilik gelditzea lortu da, “versus” Kosovo.

Loreak irtengo dira gure hemengo lorategietan, loreak milaka hilotzen gainean. Eguzkiak atea irekiko dio ilargiari eta ilunarekin batera etorriko dira hotza, beldurra, negarra eta bakardadea. Haize hozkiminak eramango ditu tiro hotsak, edurrarekin batera urtuko dira emazte, ama edo maitaleen malkoak eta udazkeneko izar hizoztuen begiradapean ixilduko dira haurren negar itoak. Urruti

sentitzen dugu Kosovo, eta egia da, baina egia garratza!

Hogeigarren mende amaiera honetako gizakiak izaki guztiak mespresatzen ditu; giza arraza batzuk besteekiko beren jabetasuna adierazteko grina asegaitzak eta jabetasun grina nazkagarriak, Hitlerren garaiko genozidioak berbizitzera garamatza. Kosovon hildako, zahar, haur, emakume nahiz gizonen prezio altua ordaindu dute beste nazioarteko gizakion begirada galduen aurrean.

Xenofobia eta arrazakeria aurkako etxeak ez dira hitzaldi moralekin eta gestu politikoekin soilik eraikitzen; jarrera aldatetarako heziketa hutsa baino sakonagoa izan behar du, erreflexio etiko batean hasi eta zentzuzko erreflexio batez bukatzeko teoria zalantzarri nahiz ilunak baztertuz.

Gogoratzea nahi ez duguna ahaztu egiten da, eta ahaztea ez duguna nahi gogoratzen da; Kosovora ihes egin dute nire pentsamendu hauek itzultzen direnean, itzalitako argiaren izpi lehuna baino gehiago izango direlakoan nago.

Igone Zubizarreta

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

LEIBAR
arraindegia

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 943 77 13 79
ARETXABALETA

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 943 77 11 75
ARETXABALETA

Bildumak erakusgai

Era, kolore eta gustu guztietako bildumak aurki daitezke. Txanponak, sigiluak, postalak eta pegatinak arruntenak izanik, badaude izugarri bitxi eta arraro direnak ere hontzen iruditxoak, pipak, ... Gizakiak duen gauzak gordetzeko joera hori benetan bitxia da, sarritan izugarritzko dirutzak gastatzen baititu horretan.

Hemen erakusgai atera ditugunak hain garestiak izan gabe pazientzia eta borondate haundiz jaso eta gordetakoak dira.


Felix Carretero Txiskeroak

Abenduaren 8an zortzi urte izango dira txiskeroen bildumarekin hasi zela eta momentu honetan 15.000 ditu, 100 gora behera. Ez da erreza hainbeste gordetzea, ez horixe! Felixek, ordea, Segoviako Cozuelos de Fuentidueña herrian 70 m² ko

txabola bat du eta bertan pilatu ditu guztiak, sabaian txiskeroak eta hormetan tabako kaxak.

Izan ere txiskeroekin hasi aurretik tabako kaxen bilduma egiten zuen. Kanariar irletara oporretara joan eta harrituta geratu zen hainbeste tabako mota ezberdin ikustean. Handik 200 bat kaxa ekarri zituen eta gero poliki poliki besteak bilduz joan da. "Oraindik jarraitzen dut bilduma honekin. Iaz Segoviako herrira itzultzean arratoiek 800 kaxa inguru jan zidatela ikusi nuen, beteak eta hutsak denetarik jan zituzten". Hasieran kaxak beteta gordetzen zituen, baina poliki poliki zigarroak erreaz joan dira, beltza berak eta errubioa lagunek. Orain 800 bat kaxa beteak egongo direla eta beste 800 hutsik aste du, kaxa guztiak ezberdinak direlarik, noski.

"Atxabaltar batek, tabako kaxak biltzen nituenez, zergatik ez zara txiskeroekin hasten? esan zidan. Esan eta hasi. Makina bat




Felix Carretero bildumagilea

lekutako jendeak lagundu dit bilduma osatzen". Valladolid, Bartzelona, Madril, Bilbo, ... leku askotatik jaso ditu, baina gehien lagundu diotenak Salamancako bat, 4.000 ezberdinak bidali zizkiona, eta Bilboko neska bat izan dira. Aretxabaletan bertan ere jende askok gordetzen dizkio. Errepi-katuta dituenak berak ere beste bildumagile batzuri bidaltzen dizkio Cadizko bati adibidez 1.800 eman zizkion.

"Lagun batzuk bonba bat dudala gordeta esaten didate, baina ni ezezkoan nago. Jasotako txiskero guztiak hasieran pertsiara azpian jartzen ditut gau osoan, barruko gas guztia gal dezaten. Beraz, ez dut uste inoiz ezer gertatuko denik, gainera lehoiak beti zabalik egoten dira".

Beste 6.000 txiskeroentzat dago tokia sabaian eta horixe da bere helburua, honela emango dio bukaera bildumari. Ez dakigu errekorrik hautsiko duen, baina asko ez direla izango hain bilduma osotua dutenak seguru.



15.000 txiskero eta 1.600 tabako kaxa ditu Felixek Segovian

Julio Ganado

Pipak



30 pipa inguru bilduak ditu Juliok

14 urtekin tabakoa erretzeko erabiltzen diren ahoko bat gustatu, erosi eta hor eman zion hasiera Juliok pipen bildumari. Ondoren batzuk berak erosiaz eta beste batzuk lagun eta senitartekoez oparituz, gaur egun 30 inguru bilduak ditu. Inoiz ez du bilduma bat osatzeko

Ana Mari Aretxaga

Dirua: txanponak eta bileteak

Ana Mariri betidanik gustatu izan zaio gauzak gordetzea, aita eta aitajaunaren erlojuak, lehengo lanpara haundiak, ... Orain 30 bat urte diru eta seiluen bildumarekin hasi zen, "erarik tontoenean hasi eta hemen nabil oraindik bukatu ezinka, droga bat da hau behin hasiz gero ..." dio Ana Marik. Handik 2 urtera filateliako elkarteko kide egin eta inguruetako herrietako lagunaren artean taldetxoa osatu zuten, baita hainbat ekintza antolatu ere, aipagarriena Udaletxearen inaugurazioan aurkeztutako Aretxabaletako II. seilu erakusketa izan zen. Denbora gutxira, ordea, taldea desegin eta ez zen beste ekintzarik antolatu. Ana Mari, dena den, beti prest egoten da bere txanpon, bilete eta seiluak beste erakusketa batzuetarako uzteko.

Seiluak bildu eta erosten baditu ere, txanpon eta bileteak gustatzen zaizkio bereziki. Munduko toki guztietakoak ditu dagoeneko, jendeari atzerrira doanean, herrialde hartako txanponak ekar ditzala eskatzen baitio, bueltan ordainduaz. "Frantses batek hogeitaka urtetan frantziako etxe batean gordeta edukitako bilete multzo bat eman zidan behin, espainiar dirua zen gerra denporan edo hemendik atera eta han gordetako"

Benetako altxorra dauka Ana Marik etxean, milaka eta milaka txanpon eta bilete bere ondorengoentzat.


asmorik izan, baina poliki poliki pilatuz joan zaizkio eta orain leku arazoa ere badu bere gelan. Colombia, Melilla, Peñíscola, Gasteiz, ... edozein lekutan aurki daitezke eta gustatuz gero, Juliok erosi egiten ditu.

Peñíscolan lortutakoa, erosi eta berehala lagun bati utzi, honi lurrera erori eta keramikazkoa zenez, apurtu egin zitzaion. "Apurtu egin didazu atera zitzaidan barru barrutik eta ondoren antzeko beste bat erosi nuen. Baina lagunak zati guztiak jaso eta konpontzea lortu zuen. Orain bi ditut oso antzekoak".

Andra Maixa batzutan, lagunekin batera, bertako hiru pipetan erretzen saiatu ziren. Ez zitzaien gehiegi gustatu, baina esperientzia polita izan zen. Tabakoaz gain, pipa batzuk opioa erretzeko dira eta beste batzuk marihuanarentzat. Osaba batek eta aitonak egindako piparik ere badu "osabak zuhaitz adarrekin

egiten ditu, ez dakit erretzeko balioko duten, baina oso kuriosoak dira".

Flautak eta harri eta mineralak ere gordetzen ditu, baina neurri txikiagoan "gustatzen zaizkidan gauzak bakarrik gordetzen ditut, hori bildumak egitea bada bildumagilea izango naiz".



Aretxabaletako II. seilu erakusketa egunkarian ere agertu zen



Gehienak lagun eta senitartekoez oparitu dizkiote

Bikene Zubia Hontzen irudiak

Hontzen irudiak gustatu eta orain 5 bat urte hasi zen bildumarekin. Hasieran berak erosten bazituen ere gehienak lagun eta senitartekoez oparitu dizkiote. 115 ditu momentu honetan eta toki faltagatik ez du jarraitzen gelan ez baizaizkio gehiago sartzen. Hormakoak eta zutik jartzen direnak dira, tamaina, kolore eta itxura guztietakoak, denak ezberdinak gainera. Handiena hormakoa da eta 35 zm. ditu eta txikiak, berriz, zentrimetro bat eskas. Hain txikia izanik ez galtzeko beste baten oinera itsatsi zuen bestela larri ibiltzen zen aurkitzeko.

“Bidaiatu dudan ia toki guztietakoak ditut, Estatu Batuak, Ingalaterra, Colombia, Italia, ... Herrialde batzutan saila izaten da hain zuzen hontzak aurkitzea”. Hontzok eginda dauden materialeak ere erabat ezberdinak dira egurra, harria, beira, argizaria, zilarra, keramika, ... “Anaiak batzutan hori bakarrik daukazu? esaten dit, baina gero denei hautsa kendu eta tokia aurkitu behar zaie, jendeak horrelakoetan ez du pentsatzen”.

Zorte ona ematen duten hontzak izan ez arren nahikoa zorte behar da denak apurto eta galdu gabe zaindu eta mantentzeko.

Miren eta Mikel Igartua Seiluak

Miren eta Mikelek 16 eta 14 urte dituzte eta gurasoekin batera, urteetan zehar seiluak gordez joan dira. Batetik aitak aspaldian jasotakoak dituzte, bestetik etxera heldutako eskutitzei kendutakoak eta baita lagunek emandakoak ere. Erosi, berriz, bildumarako ez dute inoiz seilu bat erosi. Gorde eta gorde pilatu egin zitzaizkienez, “zergatik ez bilduma bat egin? paentsatu genuen eta horrela esan eta hasi. Orain pare bat urte hasi ginen sailkatzen eta kartazalean gordeta ditugu, noizpait albumetara pasatzeko asmoarekin”.

Zehatz mehatz kontatu ez badituzte ere, 1.000tik gora dituztelakoan daude. Nahiz eta gehienak estatu Espainiarrekoak izan, atzerrikoak ere ez zaizkie falta Japon, Estatu Batuak, Irlanda, Siria, Peru, Iran, ...ia mundu guztikoak bildu dituzte. “1.980 urte arte Espainian ateratako seilu gehientsuenak jasotzen dituen liburu bat daukagu. Liburu

horretan agertzen ez direnak ere aurkitu ditugu” dio Mikelek.

Errepikatutako seiluak beste bildumagile batzuekin elkartrukatzeko asmoa izan arren, oraindik ez dute inor aurkitu, beraz, norbait interesaturik egonez gero, badaki nora jo, Miren eta Mikel prest aurkituko ditu elkartrukaketak egiteko.



Mikel eta Miren bildumako seilu batzuekin

Mendi astea badator Murrukixoren eskutik

Azaroaren 7an egingo den diapositiba rallya izango da aurtengo mendi astearen berrikuntza

Urtero bezala Murrukixo mendizale elkarteak azarorako mendi astea antolatu du. Aurtengo ekin-tzen barruan lau proiektzio, mendi irteera IV. bizikleta martxa, eta nobedade gisa, diapositiba rallya izango dira.


Diapositiba rallya

Aurten berritasunen bat sartu nahi eta diapositiba rallya egitea pentsatu dute Murrukixokoek. Azaroaren 7an, zapatua, ospatuko da, parte hartzea librea izango delarik, herrira begira antolatu arren. Ez da ezer ordaindu beharrik egongo eta gaitzat Aretxabaleta inguruko natura jarri dute. Roiloak hartzeko goizeko 9etatik 10ak bitartean pasa beharko da Murruki-

xotik, bueltatzeko, berriz, arratsaldeko 6etatik 7etara. Sariak azaroaren 24an, astearte, arratsaldeko 8etan Murrukixoko txokoan banatuko dituzte, 1.ari 15.000 pza. 2.ari 10.000 pza. eta 3.ari 5.000 pza. Ondoren parte hartzaileen lanekin diapositiba emanaldia antolatzeko asmoa dago.

Proiektzio eta mendi martxak

Gainontzeko egunei dagokienez, ohitura den bezala mendiarekin lotutako proiektzioak izango dira azaroaren 5, 6, 12 eta 13an. Azaroaren 8an, berriz, mendi irteera egongo da eta 14an, zapatua, IV. mendi bizikleta martxa goizeko 9etan irtenda.



Mendiaren inguruko lau proiektzio botako dira aurtengo mendi astean

Squash txapelketan hiru atxabaltar

Urriaren 21ean eman zitzaion hasiera squash txapelketari kiroletxean. Hamasei partehartzaile apuntatu dira guztira eta horien artean hiru bakarrik dira atxabaltarrak: Gorka Madina-beitia, Iñaki Uribetxebarria eta Juan Antonio Varilla, gainontzeko partehartzaile gehienak arrasatearrak ditugu.

Partiduak eguazten eta eguakotzetan jokatzen dira eta oraindik hiru ihardunaldi besterik ez dira jokatu. Partiduak abenduaren 5a arte luzatuko dira, ondoren, final laurdenak eta final erdiak jokatu eta finala abenduaren 19an izango da.

Barkero Errealean titular

Jose Jabier Barkerok, 19 urteko atxabaltarrak, joan den domekan bere lehen partidua jokatu zuen Errealarekin lehenengo mailan. Barkero titular atera zen, nahiz eta bigarren zatian Kraussek aldatu. Txalo zaparrada handia jaso zuen zelaia utzi zuenean.

Komunikabideetan oihartzun handia piztu zuen bere debutak eta astelehenean ere Gaur Egunen elkarrizketa egin zioten.

Bestalde, Barkero oso denboraldi ona egiten ari da Sanse taldean, eta jokatu diren zortzi ihardunaldietan zortzi gol sartzea lortu du. Barkeroren ezkerria oso kontuan hartzekoa izango da hemendik aurrera.

ORTOPEDIA ORTO LAGUN

Osasuna oinetatik bururaino doa
txikitatik zaindu zapaltzeko modua

Etorri guregana!

Guk dauzkagu umeendako zapata eroxoak.

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tfnoa: 943 79 89 34

Okindegia - Gazotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

Anabel, Amaia eta Aitziber

Behobia-Donostia, hasi eta bukatu

Hiru neska hauek beraien izena A letraz hastea baino zerbait gehiago dute amankomunean, hirurek batera Behobia-Donostia maratoi erdia burutzeko asmoa hain zuzen. Batzuntzat lehenengo izango da beste batentzat bigarrena, baina denak ilusio haundiz ari dira entrenatzen eta hasi eta bukatuko duten itxaropenaz doaz.

Anabel Aranzadi, Amaia Garcia eta Aitziber Zufiria dira beraiek.

• Lehenengo aldia da denontzat?

Anabel: Ez, ni iaz egon nintzen lehenengo aldiz.

Amaia, Aitziber: Guretzat bai lehenengo da.

• Nola animatu zarete parte hartzera?

An.: Iaz parte hartu aurretik banekien nolako giroa egoten zen eta horrek motibatu ninduen.

Am.: Anabel eta nire anaia ikusi nituen Donostian iaz lasterketa bukatzen eta horrek izugarri animatu ninduen.

Ai.: Urte batean lagun batzuk parte hartu eta ni ikustera joan nintzen. Geroztik gogo haundia neukan parte hartzeko, hango giroak asko animatzen baitu.

• Hirurok bakarrik zoazte?

Ez taldean jende gehiago doa baina haiek bere martxara joango dira. Guk hasi eta bukatu batera egiteko asmoa daukagu.

• Zein da zuen helburua?

Bukatzea. Gorputza ahalik eta ondoen daukagula helmugaratu eta era berean ondo pasatzea.

• Nola eta non entrenatzen zarete?

Uztailean bakoitza bere kontura ibili ginen. Gero irailean serioago hartu eta batera korrikan egiteari



“Indarra gordetzean dago sekretua, erritmoa kontrolatuz gero ondo hel daiteke bukaerara”

ekin genion. Astean egun batetan seguru eta normalean bi egunetan joaten gara Urkulura. Azken aldian aldatzen saiatu gara Aramaio, Bolibar, ... aldera joaten, aldapetan ibiltzeko.

• Behobia-Donostiako ibilbidea ezagutzen al duzue?

An.: Nik bai iaztik. Ez da erreza baina aldapak ez dira esaten duten bezain gogorak. Indarra gordetzean dago sekretua, erritmoa kontrolatuz gero ondo hel daiteke bukaerara.

Am.: Anaiaren esanetan Pasaia-ko lautada ere oso gogorra egiten

da, luzea izanik inor ez delako egoten animatzen. Indar asko erretzen da bertan.

• Zein beste kirol egiten duzue?

Oso kirolzaleak gara denok mendira joatea gustatzen zaigu, pasiatzea, bizikletan ere ibiltzen gara eta azken aldian aerobic-era ere joaten gara.

• Gero eta neska gehiago ikusten da korrikan, zergatik uste duzue dela?

An.: Kirola modan dagoela uste dut. Dena dela uda aldean gehiago ikusten dira.

Ai.: Nik ez dut uste hainbeste ikusten direnik, gainera beti berberak izaten dira.

Am.: Udazken, negu aldera neskek barruko kirolak gehiago egiten dituzte, aerobic-a, ...

• Gustorago egiten da korrikan taldean?

Am.: Entrenamenduetarako askoz hobea da, horrela betebehartzat hartzen baita korrikan egitera joatea eta ahalegindu ere gehiago egiten gara. Bakarrik, errezago nagitu edo desanimatu eta uzten da.

An.: Lasterketan, berriz, gaizki joanez gero besteengan apoiatzen gara eta ondo joanez gero besteak anima daitezke.

• Honen ostean beste lasterketarik egiteko asmorik?

Zapatu honetan, hilak 24, Legazpi-Urretxu egiteko asmoa dugu. 12 Km. direnez entrenamendu serioa izango da eta hirurok taldean nola moldatzen garen ikusi nahi dugu.

An.: Iaz Behobia-Donostia egin ostean oso animatuta nengoen beste lasterketa batzutan parte hartzeko baina denbora pasa ahala animoak jeitsi egin ziren eta ez nuen besterik egin.

Am., Ai.: Aurten saiatuko gara beste batzutan ere parte hartzen.

Sendotzako taldeetako gazteak

Oso ohikoa ez bada ere, oraindik badaude Parrokiara hurbiltzen diren gazteak

Elizara joatea ez dago modan eta gutxiago gazteen artean. Mezetara joan ohi denak badaki oso noizbehinka ikusten direla gazteak elizako jarlekuetan.

Elizara hurbiltzea ez dago modan, baina oraindik bada Parrokia inguruan dabilen gazte talde bat sendotzako sakramentua hartzeko prestatzen.

Bukatu dira 50 eta 60ko gazte taldeak sendotzako sakramentua hartzera etortzen zireneko garaiak, guraso eta senideak elizan sartu ezinik gelditzen ziren bitartean. Iazko kurtsoan 30 neskek hartu zuten sendotza, benetan adierazgarria.

Hiru urteko kurtsoa

Sendotza hiru urtetan banatuta dago. 2. batxilergo orokorrean edo 4. DBHn dabilzanean egiten zaie deialdia eta 18 urte bete arte egoten dira. 1. urtean norbera eta lagun taldea lantzen dute, neska mutil gazteek beren buruarekin eta inguruarekin dituzten harrema-

nak aztertuz. 2. urtean Jesusi buruz hitzegin eta ausnartzen da eta 3. ean, berriz, Eliza eta sakramentuei botatzen zaie begiradaxo bat. Hiru kurtsoek jarraipen egokia izan badute, girotzeko gogo-ihardunak egin ostean sendotzako sakramentua hartzeko prest daude.

Antziñe Mendia monitorearen esanetan "gero eta heldutasun gutxiagoko gazteak datoz. Horrek erritmo ona eramatea zaildu egiten du, sarritan hutsegiten baitute aste-eroko deialdira".

Mixio taldea

Gazteek batzutan nahiago izaten dute mugitzera bultzaten dituzten ekintzak burutzea. Hori kontutan izanik, iaz hirugarren munduari laguntzeko proiektu bati

hasiera eman zioten. Colombiako Sancti Spiritu eskolako bederatzik ikasleentzat beka dirua lortzea izan zen helburua eta baita lortu ere urtean zehar egindako hainbat ekintzetan. Mixio taldeak aurtengo proiektua oraindik zehaztu gabe dauka.

Gazteen helburuak

Agurtzane Azkargorta aurten 3. kurtsoan hasi da. Ez daki oso ziur zergatik hasi zen sendotzan, behar bada amak esan ziolako, baina oso gustora joaten da bileretara. "Taldean oso giro polita daukagu eta hori garrantzitsua da edozein gaitiaz lasai hitzegin ahal izateko. Dena dela gehien gustatu zaidana mixio taldea izan da, hirugarren munduko jendeari lagundu ahal izateak baliagarriak garela sentiarazten baigaitu".

Udaberri alde-ara sendotza hartzeko ordua helduko zaio, nahiz eta berak dioen bezala oraindik urruti ikusi momentu hori.

Sendotza ostean ere beti dago aukera jarraitzeko, parrokiara ez baita falta, nor ausartuko ote da?



3. mailako sendotzako gazte talde bat bilduta

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1
☎ 943 79 71 69

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

Maritxu

Mertzeria


Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 943 79 23 53
ARETXABAETA



MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 943 77 11 76



Pasa dira hauteskundeak

Bai pasa dira hauteskundeak baina oraindik bere ohiartzuna aste batzutura behintzat luzatuko da. Argazki honetakoak 1979ko Udal hauteskundeetan Aretxabaletako udaletxerako aurkeztutako autagaiak dira. Bertan, Eusko Alderdi Jeltzaleko, **Jesus Mari Herrasti** (alkatetzarako autagaia), **Manolo Zubillaga**, **Jose Antonio Zubizarreta** eta **Santiago Zubizarreta** ikus daitezke. Garbi dago, oraindik EAJn banaketa egin eta EA sortu gabe zegoela. Zerrenda, berriz, Herri Batasunako autagaiena da.

Hauteskundeetan herritarrek aukeratu zituzten autagaiak honakoak izan ziren: alkatea Jesus Mari Herrasti eta zinegotziak Manolo Zubillaga, Jabier San Migel, Karmelo Azkoitia, Jesus Osinaga, Alvarez, Galdos eta Anjel Akizu EAJtik.; Jose Mari Idigoras, Jose Antonio Anduaga eta Arantza Alzola HBtik eta Aquilino del Fresno eta Sauc PSOEtik.

Argazki hau montaje txiki bat da, Eguzki Alde elkarteak antolatutako argazki rally-aren inguruan ateratakoa. Aretxabaletako arazoa gaiaren barruan, argazkilariek hauteskunde eta diruaren arteko harreman edo lotura erakutsi nahi duela dirudi. Laister euroak erabiliko ditugun garai honetan, mila pezetako zahar hauek ahaztuta dagoen jendea izango da, beste gazte batzuk ezagutu ere ez dituztelarik egin.



Zenbaki

Basabe
Industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoak: 943 71 21 12
943 71 22 68

Aholkularitza

Etxabe
harategia

Durana 4
☎ 943 79 16 61

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 943 77 13 57

LANA

◆ **Pertsona bat** behar da arratsaldetan **ingelesa** emateko. Tfnoa: 943 79 00 69.

◆ **Majisteritza** egin duen pertsona batek klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 943 79 06 81

◆ **Langaiko lan eskaintza**

Zurgina. Gasteiz.
Ref: 13744/3

Manpara montadorea. Gasteiz.
Ref: 13761/2

Administrari kontablea. Bilbo.
Ref: 13813/1

Gimnasia erritmikoko irakaslea. Bilbo.
Ref: 13667/1

Bero emale irakaslea. Bilbo.
Ref: 13469/2

Enkofratzaile irakaslea. Bilbo.
Ref: 13471/2

◆ **Lan eskaintza publikoak**

Bakioko Udala. Aparejadorea.
Epea: 98/10/31
Oinarriak:98/9/14

Basauriko Udala. Zergak gestionatzeko erdi mailako teknikaria. Erdi mailako ikasketak.

Informatikako erdi mailako teknikaria. Erdi mailako titulazioa.

Analista programatzailea. Erdi



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.

mailako titulazioa.
BOEn publikatzeko zain.
Oinarriak:98/9/7

Muskiz. Udaltzain ofizial ordea.

Epea: Publikatzeko zain.
Oinarriak:98/8/31

Berriozar. Emakumei argibideak eta aholkularitza emateko monitorea.

Epea: 98/11/9
Oinarriak:98/10/9

DENETARIK

◆ Leioan pisu bat osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 943 79 30 61 telefono zenbakira.

◆ Neska batzuk pisu bat (edo gelak) alokatu nahi dute Aretxabaleta edo Arrasaten. Tfnoa: 943 71 20 72 (Josune).

◆ Pisu bat alokatu nahi da Aretxabaleta edo Arrasaten. Tfnoa: 943 79 20 61. (Ibon).

ETXE BIZITZA

◆ Pisu bat erosi nahi da Aretxabaletan berehala betetzeko. Tfnoa: 943 79 32 92.

◆ Pisua salgai dago Eskoriaztzako San Pedro auzoko 11. zenbakian, 2. solairua. Interesatuak deitu 943 71 43 58 telefono zenbakira. (Felis).

LEHIAKETAK

◆ **Arizmendiarieta XIII. lehiaketa.** Gizabidea fundazioak, 1998/99 ikasturtean irakaskuntza ertaintetako Euskal Herriko ikasleei dei egiten die. Lehiaketaren gaia **amets bat eraikiz** da eta ikasmilaren arabera bi mailatan banatuko dira: A mailan DBHko 2. zikloa sartzen da eta narrazio-informazio testuak aurkeztu beharko dituzte, gutxienez 15 orrialde. B maila ez derrigorrezko hezkuntzari dagokio eta generoa saikera izango da, gutxienez 25 orrialde aurkeztuaz. Ikastetxe berean maila bakoitzeko 6 lan bakarrik bidali ahal izango dira. Lanak bidaltzeko epea 1999ko maiatzaren 17an amaituko da. eta helbidea ondorengoa da:
Gizabidea fundazioa
Posta kutxa 136
20550 Aretxabaleta.
Telefona: 943 79 31 32



Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

Orain arraindegi eta okindegiaz, zatoz!

Mitarte kalea z/g 954 79 92 11
ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 943 79 07 34
943 79 31 87

...eta kitto!



Umore onez natorkizue gaurkoan. Egun freskoak dira hauteskunde biharamuneko egunak. Ni neu itxaropenez gainezka nago jendeak erakutsitako interesagatik. Orain arte bizi izan dugun egoera aldatzeko interesagatik, noski. Hemendik aurrera emaitzak aztertu eta aurrera egitea gelditzen zaigu. Ez nuke nahi, Aretxagazetako atal hau nire *meeting* partikularrean biurtzea. Beraz, gaurko egun fresko hau hasteko, albiste freskoei helduko diet.

Urriaren 17an haur eskolen koordinakundeak antolatutako manifestaldia burutu zen Donostian. Antza, manifestaldi honetan atxabaltarren presentzia nabaria izan zen. Beranduago "El Mundo" egunkariko argazkien artean **Nahia** eta **Ane Martin** eta **Martin Berrizbeitia** azaldu baitziren. Baina Atxabaltarren presentzia **Oier Sarasua** eta **Txurdak** ere nabaritu

zuten nonbait. Izan ere atxabaltar ugari joan zen bikoteak Lasarten egindako estreinaldira.


Luis Mari Beitia eta **Julita Gonzalez** bikoteak ere, musika kontutan ez dakigu, baina sukaldean bikote ona osatzen dutela erakutsi dute, Gipuzkoako jubilatuen elkarteko marmitako txapelketan irabazleak izan direlako. Trofeoa eta afari ederra irabazi dute, azken hau Argiñanoren jatetxean.

Kontu guzti hauen artean, ostiralean berri pozgarria jaso genuen **Axu** etxera zetorrela jakitean. Bi milioiko fidantzapean kaleratu duten arren, berriro ere etxean daukagu zazpi hilabete luze eta gero.

Berri pozgarriak eta freskoak dira gaurkoak. Futbol kontutan ere berri freskoa dakarkizuet harritzekoa bada ere. **J.J. Barkero** atxabaltarrak domekan estreinuko aldiz jolastu zuelako lehenengo mailan Errealarekin. Honi ere zorionak eman beharrean nago, bere estreinuko aldi ondo aritu zelako.

Beste askotan baino berri kopuru txikiagoa eskeini dizuet gaurkoan, ni neu ere aspaldian galdu xamar nabilelako. Lehen aurrekanpaina zelako, gero hauteskundeak zirelako, eta orain... gure geroa jokoan dagoelako. Momentuz hauteskunde egunak emandakoa jarraitzen ahaleginduko naiz. Norbaitek nahiko ez lukeen sorpresatxoaren zain. Hurrengo alean kontu gehiagorekin azaltzea espero dut. Bitartean egun fresko baten zain geldituko naiz. Akabo *meetinga*.

Liburutegiko txokoa



Guía de Clásicos de la Literatura infantil y juvenil 1 - 2: (desde 1950)

Luis Daniel González
Ediciones Palabra, 1997-98

Bi liburu hauetan haur eta gazte literaturan klasikoak diren liburuen zerrenda bat egiten da autoreen arabera sailkatuta. Liburu bakoitzean autorearen biografia labur bat, argumentuaren laburpena eta komentario bat ageri dira, marrazki batzuen bidez generoa eta adina ere ematen direlarik.

Liburu hauen erabilera printzipioz haur eta gazteei zuzendua da, zer irakurri aukeratu ahal izan dezaten eta gai konkretuei buruz dauden liburuak ere ikusi ahal izateko. Dena den beste erabilera ugari ere izan dezakete liburu hauek, bai guraso zein irakasleentzat, edo ikasleentzat ere lan bat egiterako orduan.

Bi liburu hauek kontsultarako erabiliko diren liburuak dira eta horregatik ezingo dira etxera eraman; Liburutegian bertan kontsultatu behar dira.

Bukatzeko esan nahiz eta gaztelarazko liburuak aipatu bertan, kasu askotan euskarazko bertsiok ere aurkitu ahal izango dituzuela Udal Liburutegian.

Joseba Lopez de Armentia

URRIA

31
zapatua

BERTSO JAIALDIA

Hiru tx taldeak antolatuta, gaueko 10etan Zaraia zineman. Bertan parte hartuko duten bertsolariak Euskitze, Imanol Lazkano, Andoni Egaña eta Unai Iturriaga. Sarrera 500 pzta. alde aurretik (tabernetan salgai) eta 600 pzta. bertan.



Mendi astea
Murrukixorekin
Azaroak 5-14

5
eguna

PROIEKZIOA

“Ski trabesia: Aneto-Possets-Perdido” Hizlaria: Batis Goikoetxea. Arratsaldeko 7,30etan Zaraia Zineman.

6
egukotxa

PROIEKZIOA

“Tras Andina 97: Andea bizikletaz” Hizlariak: Txema Sánchez eta Aintzane Egibar. Gaueko 10etan Zaraia Zineman.

7
zapatua

AZAROA

1
domeka

DOMU SANTU EGUNA

Hilerria bisitatu eta loreak eramateko eguna.

DIPOSITIBA RALLYA

Gaia: Aretxabaleta inguruko natura. Diapositiba roiloa goizeko 9etatik 10ak bitartean jasoko da Murrukixon eta entregatu, berriaz, arratsaldeko 6etatik 7ak bitartean. Sarien banaketa azaroaren 24an, asteartea, egingo da Murrukixon arratsaldeko 8etan.

8
domeka

BEHOBIA-DONOSTIA

Goizeko 11etan Behobian hasita, 20 km. luzera duen lasterketa, Donostian amaituko da.

MENDI IRTEERA

Murrukixo mendizale taldeak mendi astearen barruan antolatua.

12
eguna

PROIEKZIOA

“Pirineotan zehar oinez” Hizlaria: Migel Mari Elozegi. Arratsaldeko 7,30etan Zaraia Zineman.

13
egukotxa

PROIEKZIOA

“Dunagiri” Hizlaria: Mikel Zabaltza. Gaueko 10etan Zaraia Zineman.

14
zapatua

IV. MENDI BIZIKLETA MARTXA

Irteera goizeko 9etan.

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83 ARETXABALETA

S.T. Itzulpen
zerbitzua

ARETXABALETAN
Alemana, frantsesa, ingelesa,
umeentzako euskara

Informazioa: 943 79 00 69
Bulego orduak: arratsaldean
3,30 pm - 6,30 pm


**EUSKADIKO VI. EUSKAL
ANTZERKI TOPAKETAK**

Urriaren 16an hasita Abenduaren 21a arte luzatuko dira Azpeitian.

Urriaren 31n, zapatua, Markeliñe antzerki taldeak "Kartoi biraka" antzezlanaz aurkeztuko du Zelaitxo antzokian arratsaldeko 7etan.

Azaroaren 7an, eguakotxa, arratsaldeko 7etan Chimères antzerki taldeak "Haurrak Zutik" antzezlanaz eskeiniko du Zelaitxo antzokian.

Azaroaren 13an, eguakotxa, arratsaldeko 4etan irrati lehiaketa izango da Enparan dorretxean.

**IKASTARROAK****BAINIKA ETA GANTXILO
IKASTAROA**

Taldea osatu gabe aurkitzen delako ikastaroa hasi ezinka dago. Interesatuok lehenbailehen hurbil zaitezte Kultur etxera izena ematera eta jendea pilatu bezain laster emango zaio hasiera ikastaroari.

GERIATRIA IKASTAROA

Arrasateko Familia eta Gizarte Hezkuntzarako zentruak Geriatria ikastaroa antolatu du. Ikastaroan parte hartzeko emakumea izatea, eskola-graduatu edo titulua lortzeko konpromisoa izatea eta enplegu eskatzailearen txartela izatea eskatzen da. 400 ordu izango dira eta ikastaroak martxoan arte iraungo du.

**DANTZA KARIBEARRAK
SAKONTZE MAILA**

Arrasaten azaroaren 11an hasiko da ikastaroa. Klaseak astelehen eta eguaztenetan emango dira arratsaldeko 7,30etatik 9etara. Interesatuak izena emateko Arrasateko gazte bulegotik pasatu beharko dute.

**BEHARREZKO
TELEFONOAK****Aretxabaleta**

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 01 05
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 79 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

**ERREKABARREN
MERKATAL ZENTRUA**

• JUANTXO URDAITEGIA	943 79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	943 79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	943 79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	943 79 31 59
• LEINTZ-ROSI	943 79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	943 79 96 43



Oñatin jaioa da baina orain 10 urte etorri zen Aretxabaletara bizitzera. Bere aurpegia ezaguna egingo zaizue, Osasun zentruan lan egiten baitu, honen sorrera-sorreratik. Administraritzaz ikasi zuen eta horixe du bere lana Osasun zentruan ere.

• Zenbat urte daramatzazu Osasun zentruan?

Hamabost urte, hasiera-hasieratik nago.

• Osakidetzak eskaintzen duen zerbitzua nahikoa dela uste duzu?

Eskaria asko igo da eta langilegoa ez da igo, beraz, motz gelditu da.

• Jendea asko kexatzen da Osasun zentruko zerbitzuaz?

“Osasun zentruko eskaria asko gehitu da baina langilegoa ez”

Bai, baina guri kexatzea alperra da, erreklamazio orri batzuk daude bete eta zuzendaritzara pasatzeko.

• Zein da egunik gogorrena?

Astelehena.

• Duzun lana zure ametsetako lanbidea da?

Era batean bai, osasun arloan lan egitea espero ez nuen arren.

• Odolik ematen duzu?

Ez, baina egunen batean ematea espero dut.

• Zein odol mota daukazu?

0 negatiboa.

• Zer baloratzen duzu pertsonengan?

Zintzotasuna.

• Zer botatzen duzu faltan herrian?

Hondartza eta itsasoa.

• Tabernaz-taberna ala mendiz-mendi?

Bietatik baina gehiago mendiz-mendi.

• Euroaren inguruan zein iritzi?

Moldatuko gara.

• Zer da gizarte honetan gehien gorrotatzen duzuna?

Hipokrisia, kontsumismoa eta

telebistaren aginduetara bizitzea.

• Zein da senarrari egin diozun azken erregalua?

Forro polarra.

• Kirolak, zein ikusi eta zein praktikatu?

Ikusteko esku pelota gustatzen zait, eta praktikatu mendia eta yoga.

• Erretzailea izatea zela ikusten duzu?

Erretzailea izandakoa naiz, orain 10 bat urte utzi nuen. Orain traba gehiago egiten dit.

• Elkarfeetan emakumeak bai ala ez?

Bai, jakina.

• Lore bat?

Larrosa.

• Beldurra zeri?

Bakardadeari.

• Horoskopoa irakurtzen duzu?

Parean jarrita bai, sinistu ez.

• Non pasiatzen duzu Aretxabaletan?

Larrino eta Urkulu aldean.

• Telebistak kalte ala lagundu egiten du?

Iritzi kritikoa ez ikusiz gero informazioa izan daiteke.

KOMIKIA



(Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

TABERNA eta JATETXEEN GIDA

Bedarreta taberna

Bedarreta

Beti bezeroen zerbitzura

Otalora, 19 ♦ Tfnoa: 943 79 20 89

Basabe jatetxea

Menu eta afariak

**BASABE
JATETXEA**

Basabe poligonoa • 943 79 91 84

Kixkor taberna

KIXKOR
taberna

Mitarte, 13 • ARETXABALETA
☎ 943 79 20 60

Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Arlutz taberna



Gustoko musika

Mitarte, 16 • ARETXABALETA
Tfnoa: 943 79 32 34

Artano taberna

**Herriko
plazan
ARTANO**

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

Bazter alde jatetxea



**Sasoiko
jakiak
giro
onenean**

Galartza auzoa
☎ 943 79 24 58
ARETXABALETA

Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA
☎ 943 79 20 67

Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA
• Parrila espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABALETA
☎ 943 79 68 57

Matikua jatetxea



Azatza auzoa ♦ Tfnoa: 943 79 16 68

Jose Mari bodegoia

**Eguneko
menua**

Nafarroa, 6
Tfnoa: 943 79 20 45
Aretxabaleta

**Jose Mari
bodegoia**

Gurea taberna

**Jatetxea eta
taberna**

GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 943 79 20 64

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

Mitartegarai

*Mitartegarai
Jatetxea*

Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 17 51



Mendiola erretegia

ESKORIATZA



Tfno 714345

♦ Bazkari
eta afariak
Astelehenetan
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Escort

HARRITU
ZAITEZ



ESCORT 1.800 TDI 90 cv 1.950.000 pta.

ESCORT 1.600 I 16V/90 cv 1.749.000 pta.

Prever 80.000 plana barne



Hiru, lau eta bost ateduna eta familiarra

Motorrak gasolina eta TDi

Probatu eta ikusi Mugarrin

“Benetako Word-Car bezala hartua”

Autopista 2004 zenb.

“Ginebrako auto izarra, Ford Focus udazkenetako aterako da”

98/3/4 Negocios

“Estetikoki erakargarria, Ford Focus-a gainera, pertsonala eta praktikoa da”
AUTOPISTA, 2017 zenb.



focus

MUGARRI

DEBA GARAIKO
KONTZESIONARIO OFIZIALA